

berria

2018-12-9
XVI. urtea. 4.803. zenbakia
1,80€

Igandea



Kriseilu bat iluntasunean

2 'Muga deitzen da Pausoa' filmak pantailara eramán du Elbira Zipitria. Metodo berritzaileak erabili zituen eskolak euskaraz emateko, eta erreferentzia bat izan zen ikastolen sorreran

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU



Durangoko 53. Azoka. Sortzaileak eta industria orain artekoarekin pozik agertu dira, azken eguneko bisitarien faltan **Iritzia.** Juanjo Olasagarre



29

'Bateragune auzia'

Hautagai izateko babes helegitea tramiterako onartu dio Konstituzionalak Otegi

11

Roberto Larrañaga

«Enpresek nahiko ekarpen egiten diote zerga sistemari. Gehiegi pagatzen ditugu»

Elkarrizketa • 14

Jaka Horiak

Mila lagun inguru atxilotu dituzte, Macronen aurkako beste protesta egun batean

18

A. Diaz de Ilarraza

«Zaila da informatikariaren estereotipoarekin moztea; urteak daramagu saiatzen»

Elkarrizketa • 46



ANDEREÑO ELBIRA, ARO ARTEKO ATEA

1940ko hamarraldiaren hasieran hasi zen Elbira Zipitria euskarazko eskolak ematen, Donostian. Diktaduraren aurka abertzaletasunak eta euskaltzaletasunak zedarritu zituzten erresistentzia eremuetako bat itxuratzen hasi zen, beste hainbat andre eta gizonekin batera. «Erreferentea» izan zen gerraostean ikastolak ontzeko abiatu zen bidean.

Arantxa Iraola

Donostiako Parte Zaharrean, Fermín Calbeton kaleko 26. zenbakian, 2. solairuan, uharte izan zen Elbira Zipitria –ondoan izan zuen talde batekin batera– 40ko hamarralditik aurrera. Frankismoak erauzitako eremuetako bat biziberritu zuen: euskarazko irakaskuntzarena. Diktaduraren lehen urteak ziren, zinetan gordinak, baina Donostiako hainbat familiak halaxe eskatuta haien haurrei euskarazko eskolak ematen

hasi zen. Sendi horietako asko «burgesiako» parte zirela azaldu izan dute ikertzaileek; gerra galdu zutenen aldekoak ziren denak, jeltzaleak gehienak. Haurrek 8-9 urte bete bitartean jarduten zuten harekin, legez kanpoko egoeran beti, talde txikietan. «Haren inguruan badira hainbat osagai mi-resgarriak erabat», azaldu du Jesus Mari Larrazabal EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia irakasle ohiak. Zipitria ez zuen ezagutu, baina, haren izena go-raipatzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatuta zituen haren jaiotzaren mendeurrenean, 2006an. Orduantxe, halaber, *Elbira Zipitria* gogoan liburua argitaratu zuen,

hari buruzko hainbat gogoetarekin. «Emakume saiatua zen, oso saiatua; ez zuen atzera jotzen. Egoera zailenetan ere, aurrera egiten zuen». Etxe baten abaroan egindako keinua izan zen harena, txikia, baina, orduko desertu hartan, nabarmengarria. Ikastolen loraldiaren atarian, 50eko eta 60ko hamarraldietan, «erreferentzia» izan zen hainbat andereño gazterentzat; trebatu ere egin zituen asko. Aurki, hala ere, atzeratuta geratu zen haren izena: bakartuta. «Euskaldun fededun eredu horren adierazpen argi bat zen», azaldu du Larrazabalek: itzaltzen hasia zen mundu baten erueda. 1960ko hamarraldian

Euskal Herrira heldu ziren ideia berriak uholde baten gisan sartu ziren, gogo txarrez hartu zituen gehienak –euskara batuaren kontra, esate baterako, suhar arituzen–, eta aro berrietara moldatu ezinik geratu zen *andereño Elbira*. Halaxe esaten diote oraindik ere haren ikasle izandako hainbatek. Nahigabez kontatzen dituzte gehienek azken urteetan izan zituen bizipen asko. 1982. urtean hil zen, Donostian.

40ko hamarraldiko irakasle ibilbidea hasi zuenerako, emakume aski ezaguna zen Elbira Zipitria Donostiako gune abertzaleetan. Zumaiakoa (Gipuzkoa) zen sortzez, 1906koa. Baina neska

gaztea zenetik bizi izan zen Gipuzkoako hiriburuan, eta euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna bizi ikusi zituen gaztetan: loratuta. 1922an, esaterako, EAB Emakume Abertzale Batza eratu zen, andrazko abertzaleen mugimendu indartsua; bertako kide ezaguna izan zen. Maistra ikasketak amaituta ere, giro horrekin arituzen: hain justu, 1926an irakasle hasi zen Migel Muñoa ongileak hirian abian jarria zuen ikastetxean; euskaraz ziharduen zentro bat zen, 1914tik martxan zegoena. Giro hartan ondu ziren Zipitria gaztearen izaera eta pentsaera.

Ez da «mitoak» eraiki zalea Idoia Fernandez EHU Euskal He-

**Elbira Zipitria,
bide urratzailea**



1 Emakume Abertzale Batzan. Hizlari ospetsua izan zen. 1932an, Donostian. BY-NC 4.0

2015 / KUTXATEKA / MARIN / PASCUAL MARIN

2 Saran. 1936tik 1939rako bizilekua. BERRIA

3 Fermin Calbetonen. Bere etxe-eskolan, ikasleekin; lurrean ibiltzen ziren asko. BERRIA

4 Ikasleekin. Irteeretako batean. BERRIA

5 Barandiaranekin. Harremana izan zuen euskal kulturako jende ezagun askorekin; irudian, Jose Migel Barandiaranekin. BERRIA

rriko Unibertsitateko irakaslea, *Ikastolen historia 1960-1975* tesiaren egilea. Ulertzen du, hala ere, Zipitriak 40ko hamarraldian egin zuen lanari erreparatuta aurki agertzen dela galdera, mirasmenezkoa: «Hau zelán da posible?». Baina hori ulertzeko gerra aurreko bidea aintzat hartu behar dela argudiatzen du; handik baitzetorren sua. 1918an Eusko Ikaskuntzak Oñatin (Gipuzkoa) egindako biltzarrean euskal irakaskuntza aldarrikatu zuen; hain justu, data hori «mugarri» gisara hartu behar dela uste du.

DATAK

Zipitriaren biografia, datatan:

1906. Maiatzaren 28an jaio zen, Zumaian (Gipuzkoa).

1922. Maistra izateko ikasketak hasi zituen, Donostian.

1926. Irakasle lanetan hasi zen.

1936. lhies egin zuen gerrako jazarpenetik, Sarara (Lapurdi).

1942. 1940ko hamarraldi hasierako buelta zen; eskolak ematen hasi zen, ikasleen etxeetan.

1946. Etxean eskolak ematen hasi zen; etxe-eskola abiatu zuen.

1968. Orixe ikastolan hasi zen, beste hiru andereñoekin.

1971. Erretiroa hartu zuen.

1982. Abenduak 26 zituela hil zen, Donostian.

Aurreko bidea

«Hasi zen euskal hezkuntzari buruzko kezka hezurramitzen. Eta gauzatzen dira zenbait eskola esperientzia praktikan», azaldu du Fernandezek. Horra lehen etsenplua: «Izan zen Bizkaiko auzo eskolena; eredu linguistikoak agertu ziren lehenbizikoz. Euskal hiztunak zeuden tokietan euskaraz irakasteko hautua egiten zen. Auzo galdutako zeuden eskolak ziren; horietan egin zen lan bat, eta euskal maistrak sartu ziren lanean». Bigarren adibidea, hara: «Eusko Ikastola Batza. 1931n sortutako mugimendu baten ondorioa izan zen, euskal eskola propioak sortzeko; *ikastola batza* deitzen da, eta *ikastola* izena hortik zabaltzen da. Auzo eskolena baino fenomeno txikiagoa da kopuruz, baina euskal eskolaren ideia erdiesteko oso inportantea». Esan du ernaltzen ari zen mugimendu haren hirugarren zutoina Donostian zegoela, Zipitriak lantoki izan zuen eskola hartan bertan: «Muñoaren eskolana». Abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren itzalean egituratzen ari zen mugimendu hartan, beraz, lehen lerroan egon zen Zipitria, beste askoren ondoren. Ingurumari hori guztia uler-

tzeko «geruza» ezinbestekoa iruditzen zaio Fernandezi EAB ere. «Emakume Abertzale Batza izan zen mugimendu bat neurritz oso handia izatera iritsi zena; 25.000 emakume bazkide eduki irakasteko hauetua egiten zen. Elkartek horren ideologian propio agertzen dira euskararen transmisioa eta neska-mutilen heziketa; horri buruzko kezka handia dago. Izan zen oso mugimendu interesgarria; gero gertatu diren gauza askoren gakoak hor zeuden». Ereinda. «Zipitria ingurumari horretako alaba da».

EHUko irakasle Iratxe Retolazak ere aztertua du aldi hura. «Aldaketa handi bat izan zen, adibidez, emakumeen alfabetatzea; hezkuntzan ere sartuko da emakumea». Hain justu, indarra hartzen du «maistren» figurak. Eta emakume soslai hori nagusitzen Emakume Abertzale Batzan: «Bertan aritu ziren andre asko maistra ikasketak zituzten». Andrazko horiek hiru eremu aldarrikatu zituzten, bereziki, garai hartako balioen erakusgarri: «Euskalduntasuna, abertzaleta-

suneta eta katolizismoa: erlijioa». Horiek zabaltzeko asmoz, emakumeek «jauzi» egin zuten espazio publikora. Irudia bera berria zen, eta iradokitzailea: andrazkoak plazan, milaka lagunuen aurrean, hizlari suhar. Zipitria bera mitinari ezaguna izan zen. Mezuak, berriz, ahots ozenez esanak izan arren, emakume otzanari egiten zioten dei maiz: «'Etxean geratu', esaten zioten: 'Zaintza lanak egin: ama izan'. Tentsio horretan garatu zen Emakume Abertzale Batza. Baina plaza hartu zuten». Are gehiago, andre horien zenbait ekarpen «feminismoarekin» ere bateragarriak zirela azaldu du Retolazak: «Pixkanaka, konkistatu egin zituzten espazioak».

Gerrak erazi egin zuen hori guztia, baina eutsi egin zioten hainbat andre, eta horien artean nabarmendu egin behar da Zipitria. «Transmisio horren gordailurako oso garrantzitsua izan zen», onartu du Retolazak. Tirriki-tarraka, jarduna ia eten ez zuen bakanetakoa izan zen. 1936. urtean ihes egin zuen Donostiatik, eta Saran (Lapurdi) egon zen; abertzale ezagun asko izan zituen ondoan, eta han ere martxan ibili zen; esaterako, Antonio Maria Labaien han zen familiarekin, eta haren semeei –Ramon eta Matxin– eskolak eman zizkien.

1942an martxan zen

Ez dago argi 1939an edo 1941ean itzuli zen, baina 1942an ja Donostian finkatuta zegoen, eta eskolak ematen ari zen; ikasleen etxeetan aurrea. 1946an, bere etxea bihurtu zuen eskola. *Etxe-eskola* deiturikoetan lehena izan zen. Eta segida izan zuen; hainbat ikertzaileen arabera, 1959an era horretako hamazazpi eskola zenbatu zitezkeen Donostian. Gehienak Zipitriak tratatutako andereñoek martxan jarritakoak ziren. Gurasoek paga-

tzen zuten dena. Eta «klandestinoak» ziren. Ikasle izandakoek kontatzen dutenez, ondo irakatsita eduki ohi zituzten, zer gerta ere; inork deusgaldetuta, «eskola partikularrak» hartzera zihoazela esan behar zuten. Haur bakoitzeko kobratzen zuenaz lortzen zuen bizibidea Zipitriak. Irakaskuntzara guztiz emana bizi zen.

Sare bat bazuen inguruan. Ikasle kopurua handitu ahala, esaterako, txikiak beste biandereñoen esku uzten hasi zen: Itziar Arzelusekin eta Faustina Carrilekin

«Ez da pertsona baten lana. Baina, une batean, Zipitriaren bidez konektatu ziren errealitate horiek [gerra aurrekoa, eta gerraostekoa]. Egongo ziren beste batzuk, baina hori bihurtu da ikurra: zegoen tokian zegoelako». Aldaketa gose zen «harreman ehundura» batean nor izan zen. Lotura izan zuen, gainera, orduko euskal kulturako jende ezagunarekin: Nikolas Ormaetxe Orixe, Joxemiel Barandiaran eta Telesforo Monzonekin, esaterako. Larrazabal: «Euskaltzale ikaragarria izan zen».



Une batean, Zipitriaren bidez konektatu ziren errealitateak [gerra aurrekoa eta ostekoa]; zegoen tokian zegoelako»

Idoia Fernandez
EHUko irakaslea

«Ekarri zituen gerra aurreko mugimendua eta filosofia; jakina, atzetik zetozenek egin zuten horiek egokitu»

Iratxe Retolaza
EHUko irakaslea



«Emakume saiatua zen, oso saiatua; ez zuen atzera jotzen. Egoera zailenetan ere aurrera egiten zuen»

Jesus Mari Larrazabal
EHUko irakasle ohi

egoten ziren. Felitxu Erasunek, berriz, frantsesa irakasten zien: frantsesetik euskarara. Uhartea bat eratu zuten; diktadurak bere-bera zuten eremu batetik apartekoa. «Maistra errepublikano denak izan ziren kargugabetuak, desterdatuak, zigortuak. Francok oso ondo ziurtatu zuen maistra horiek ez zirela bueltatuko inola ere maistra postura», gogora ekarri du Fernandezek. Horregatik da garrantzitsua andereño Elbira.

Ikastolak hazi ahala, horiek legezatzeko bideak hasi ziren 60ko urteetan, eta, Zipitriaren abarotik kanpo ere, andereñoak trebatzen hasi ziren. «Andereñoen Erresidentzia ere sortu zen Donostian. Hor egin zen ahalagintik handiena eta antolatua andereñoak prestatzeko», nabarmendu du Fernandezek. Euskaratuaren aldeko hautua ere gailentzen hasi zen. «Harentzat mundu berri hori izugarriko trauma da», onartu du Retolazak. Mundu horren hatsa, gainera, hein batean, haren ikasle izandakoak izan ziren: 60ko hamarraldiko gazteak. «Zipitriak ekarri zituen gerra aurreko mugimendua eta filosofia; jakina, atzetik zetozenek egin zuten horiek egokitu». Retolazak argi du ezin zela beste era batean izan: «Piztu zituen su batzuk, jakin gabe su horiek pizten ari zela. Baina su horiek egosi zuten beste errealitate berri bat, testuinguru sozial-politiko aldatzen ari zelako. Ez zuen ikusi hori dela hezkuntzaren alderik ederrera».

● **Elbira Zipitria,
bide urratzailea**



Arantxa Iraola

Na rats beriz; Lana polikiago egin bea da; Argi asko esan nun ba. Beste guztiek entzun zuten; Txikiak baino gaizkiago; Au naskeria! Polita oria!...». Horiek guztiak Resu Abasolok, Juana Lopez de Munianek eta Arantxa Urbek *Ilunetik argira. Elbira Zipitria* libururako haren ikasleen lan koadernoak aztertuta ateratako esaldiak dira: andereñoak berak haien lanak zuzentzean idatzitako hitzak, zorrotzak horietako asko. Garrantzitsuak dira oso koaderno horiek; izan ere, Zipitriaren pedagogia berri-tzailez asko hitz egin izan da, baina haren metodoen gainean ez zuen utzi deus ere idatzita berak. Trebatu zituen zenbait andereñoen bidez zabaldu dira haren lan egiteko erari buruzko jakintzak, eta orduan ume ziren ikasleen oroitzapenen bitartez. Miresmenez aztertu izan dute askok haren lan egiteko modua. Garai haren iluntasuna aintzat hartuta, goraipatu egin behar dela dio, adibidez, Arantxa Urbek. Ikasleekin, esaterako, Urgull mendira egiten zituen txango ugariak nabarmentzekoak iruditzen zaizkio. «Urgulletik, han goitik, azaltzen zien zer den ibai bat, zer den itsasoratzea». Ikasgela barruan ere, garai hartako eskolan ohikoak ez ziren

Usu nabarmendu da pedagogikoki aurreratuak ziren metodoetan oinarrituta irakasten zuela Zipitriak. Hein handi batean, gerra aurrean izan ziren aireak hauspotu zituen diktaduran; urte ilun haietan. Hala ere, ez zuen deus ere idatzita utzi gaiaz, eta zer ikertua bada. Tratuan «zorrotz» oroitzen dute ikasle ohiek.

Beste era batean

metodoak zerabiltzan sarri askotan: «Gauza asko orain berrikuntza baten moduan aurkezten ditugunak, berak bere garaian egiten zituen. Esate baterako, manipulazioaren bidez irakasten zuen: txotxak erabiltzen zituen matematika irakasteko, eta kanikak». Ia ikasmaterialik ez zegoen aldi hartan, euskarazko irakaskuntzarako –*Xabiertxo* liburua zera bilen; gerra aurreko ekoizpena zen, 1925ekoa –, baina «inguruak» eskaintzen zizkion «baliabideak» bikain baliatzen zekien Zipitriak egunerokoa.

Arantxa Garaialde Donostian 1951n sortua da; haren ikaslea izan zen: «Kalean asko ibiltzen ginen. Gatzelua [Urgull mendian] guretzat zen zoragarria. Hostoak zirela, itsasoa zela... Bidaiak ere goaon ditut geografia –*lutelestia* esaten zion hark– ikasteko. Esaten zigun: ‘Gaur joan gara halako tokitara’. Eta gero guk mapa bat egin behar genuen». Feli Barrenetxea 1960an sortua da; justu Orixe ikastola sortu aurreko urteetan egon zen Zipitriaren etxe-eskolan. Onartzen dio haren lanari meritua: «Egia da guk metodologia aldetik bizi izan genuen hori guztia ez duela beste inork bizi izan». Elbira Zipitria zenaren ikasleen 70 koaderno inguru dituzte gordeta EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Hez-

kuntza Museoa, Donostian. Koaderno igualak erabiltzen zituzten ikasle guztiek, paper lodidunak, marrarik gabeak; arkatx urdin-gorritz aritzen ziren horietan gehienetan. Ale aski interesgarriak dira ikerketarako.



«Museoak duen altxorretako bat dira», onartu du museoako zuzendari Pauli Davilak. «Horiek ikusita ikusten dugu zer gertatu zen ikasgelan». Hezkuntza berri baterako oinarriak ipini zituzten pedagogoen itzala argi ikusten du Davilak material horietan. Dударik ez du: gerra aurreko irakasle jardunean egin zuen jardunetik edan zuen Zipitriak. *Eskola berria* deituriko joera pedagogikoa hauspotutako urteak izan ziren, eta, hein batean, horien arrastoan jarraitu zuen ondoren bere etxeko martxan ere. Bat dator museoako koordinazio batzordeko kide Luis Mari Naya. «Ezartzen ditu mugimendu horrek bere garaian proposatutako gauzak: ikasleekin mendira joatea, mendian hostoak hartzea...».

Aire berriak

Pedagogia berriak zedarrizteko erreferentzia ziren autore aitzindari askoren berri bazuela ere seguru da. «Errepublikari garaian, esaterako, Maria Montessori egon zen Bartzelonan, eta oso ezaguna zen...». Frantsesez ondo moldatzen zen, gainera, Zipitria eta hortik ere edan zuen; hainbat autoreren liburuak zituen etxean. Deus idatzita utzi ez zuenez, ordea, eragin horiek zenbaterainokoak izan



**Elbira Zipitria,
bide urratzailea**



**'Nor-nori-nork'
terminoak
asmatuzituen**

+ Euskara irakasle ere jardun zuen Elbira Zipitriak bere jardun ia etenik gabean. Gau eskolak ematen zituen, eta jende asko euskaldundu eta alfabetatu zuen. Lazkaoa (Gipuzkoa) ere joaten zen irakastera, beneditarren komentura. Ekarpena ere egin zuen, oinarritzkoa: *Nor-nori-nork* terminoen asmatzailatzat jotzen dute.

Monzon, Manuel Lekuona, Orixe, Nemesio Etxaniz... Eramaten zituen bere etxera: hori ere eskaintzen zien bere ikasleei».

Umeek 9-10 urte bete eta eskolatze arrunta hasten zutenean ere, haren eskolan ehundutako sarea iraunarazten saiatzen zen Zipitria. Eta kokortuta ere, Gipuzkoako herrietara nola eramaten zituen gogoan du Anton Mendizabalek: herriko plazan jarri, eta eskal dantzak aurkezten zituzten, kantuak. Zorrotza zen halakoetan. «Esaterako, ikasleak lotsatiak izatea ez zuen onartzen».

Alde hori ere bazuen andereñoak; hainbat ikaslek dituzte oroitzapen gordinak: zailak. Mendizabal bera, piper egiten oroitzen da, auzoan gurasoek zuten gozotegian, gezur txikitari. «Ez daukazu eskolarik? 'Ez, andereñoa gaixo dago'». Bat dator anaia: «Berak bazituen bere merezimenduak pedagogia aldetik, eta hori nabarmentzeko da. Baina irakasle gisa ez zen horrelakoa». Eta ihes egin beharra sentitzen zuen: «Berandu joaten nintzen bere etxera propio, atea ixten zuelako eta eskaileretan geratzen nintzen ez nuelako sartu nahi».

Hainbat ikasle testigantzak entzunak dira Hezkuntza Museoa. Ez zaie arrotza ikuskera hori. Naya: «Ikasleekin hitz egiten baduzu, oso zorrotza zela esaten dute. Baina, hala ere, horietako askok errekonozimendu bat badute harekiko».

Feli Barrenetxeak, esaterako, urteekin aldatu egin du ikuskera: ulerberagoa da orain. «Gogorra zen gurekin, baina bere buruarekin ere bai: oso zorrotza. Langilea, arduratsua: hori dena ezin zaio ukatu. Bizitza osoa eman egin zuen. Esaten dute mojek egiten dutena? Honena oraindik ere are»

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

ziren esatera ez dira ausartzen ikertzaileak. «Izan ere, pedagogo berritzaileek zera egiten dute: metodo bat asmatu, hori idatzi, argitaratu, beste batzuekin eztabaidatu... Zipitriak ez zuen horrelakorik egin», azaldu du Davilak. Dudatan ezin da ipini, hala ere, beste era batean irakasten zuela Elbira andereñoak: garaiko eskola gehienetan egiten zen oso bestelako era batean. «50eko hamarkadako eskolatzea zen oso tradizionala, eta, kasu honetan, haren eredu pedagogikoak ez du zerikusi handirik horrekin; ikuspegi horretatik, berritzailea da», onartu du Nayak. Gauza askotan, gainera: neska eta mutilak elkarrekin aritzen ziren, mahairik gabeko ikasgela batean jarduten zuten -sarri, lurrean eserita egoten ziren haurrek, biribilean-, txangoak ere maiz egiten zituzten, eta ikasketa prozesurako arrunt erabilgarriak ziren... Gutxienean, ezohikoa zen hori dena.

Zipitriaren eskolan nagusitzen zen gaitegiari begira, garaia erakusgarri argia da dena; gerra aurretik abertzaletasunaren loraldian andereñoak bizi izan zuten aldiarena ere bai. Davila: «Esaterako, oso katolikoa zen». Nabarmena, da horren eragina ikasle lan koadernoetan: otoitzak eta Jesusen bizitzari buruzko marrazkiak edonon ageri dira. Otoitza ere presente zegoen ikasgelako eguneroko martxan. Gogoan du Barrene-

txeak. «12:00etan dena geratzen zen angelusa erreztzeko». Aberria ere presente dago. Diktadurako urteak zirela aintzat hartuta, erresistentzia eremu bat zen Zipitriaren eskola. Koadernoetan badira, esaterako, Aberri Egunei buruzko marrazkiak, abertzale ezagunei -Sabino Arana, adibidez-



Abestien bidez kontzeptuak transmititzea izan zen haren ikasbidea: gero, ikastoletan oinarritzko ekintza bat izan da»

Mikel Mendizabal
Ikasle ohia

«Orain berrikuntza moduan aurkezten ditugun gauza asko egiten zituen. Manipulazioaren bidez irakastea, esaterako»

Arantxa Urbe
Irakaslea

«Erakusten duen mundua abertzalea da; harentzat, ez dago beste biderik. Euskaldun bazara, abertzalea zara»

Luis Mari Naya
EHUko Hezkuntza Museoa

eskaintako orriak eta Euskal Herria zazpi probintziak marraztuta erakusten duten mapak.

Davilak eta Nayak aztertuta dute zer-nola irakasten zuen andereñoak abertzaletasuna. «Nazionalismoa, nolabait ere, bihurtzen da lokalismo. Ezin du esan: 'Abertzaleak gara'. Ikurrinak eta horrelakoak ezin ditu erakutsi, eta errekerperatzen du Donostia, bertako gauzak... Horrek irakurketa bat dauka: maite behar duzu zure herria». Anton Mendizabal Donostian 1945ean sortua da. Ira-

kasle izan zuen Zipitria. «Erligioari» andereñoak ematen zion pisua ongi gogoan du: «Abertzaletasunari baino gehiago». Hezkuntza Museoko ikertzaileekin bat dator: sentimenduen bidetik mintzatzaren zitzaien aberriaz. «Behin gogoan dut nola eraman gintuen Aquariumaren atzeko aldera».

Mendi hegal batean behera ura nola erortzen zen ikus zitekeen; begiratzeko esan zien. «Elbirak azaldu zigun zapalduta zegoela gure herria, eta mendiak horrexegatik egiten zuela negar». Iltzatua du irudia. Nayak nabarmendu du era poetiko horretan abertzaletasuna irakasteaz gain, bizi egiten zela haren eskolan Euskal Herria: egunerokoa. «Erakusten duen mundua da mundu abertzale bat», azaldu du «Harentzat, ez dago beste biderik: euskalduna bazara, abertzalea izan behar duzu». Mundura begira ere jarduten zuen ikasleekin. Koadernoetako batean,

esate baterako, Martin Luther King hil zela adierazteko hilberri bat ageri da, hilarri batekin. «Eta horrek esan nahi du gai hori ere jorratu zuela ikasleekin, 7-8-9 urteko neska-mutilekin».

Kantuak eta olerkiak

Euskarazko kantu eta olerkiak eguneroko ogia ziren Zipitriarenean. Harekin jaso zuten «altorra» nabarmentzen dute ikasle askok. Mikel Mendizabal dago horien artean, Anton Mendizabalen anaia da, 1952an sortua.

«Abestien bidez ere kontzeptuak transmititzea bere ikasbidea izan zen; gero ikastoletan oinarritzko ekintza bat izan da, ikastolei nortasuna eman diena». Euskal zurrak eman zizkien ikasleei zurraren bidez: errokoak. «Euskal literatura eta poesia ere transmititu zigun oso gazte ginelarik: Lizardi,



Erabateko apustu pertsonala izan zen; bere bizitza izan zuen erlijioa eta inguru hori. Ea nork egiten zuen hori sasoi hartan»

Pauli Davila
EHUko Hezkuntza Museoa

«Egia da guk metodologia aldetik bizi izan genuen hori gutzia ez duela beste inork bizi izan»

Feli Barrenetxea
Ikasle ohia

«Aipatzekoa da zer garrantzi ematen dion gizalegeri, indarkeriaren aurka burua erabiltzeari, adimenari...»

Arantxa Garaialde
Ikasle ohia

Orixe, Agirre, Elisaburu eta abar». Ekarpene oparua jaso zutelako oroitzen du Barrenetxeak ere: «Baruz zer ez genuen ikasi! Ni memoria txarrekoa izan naiz, baina nire ahizpek eta? Primeran. Testu zail askoak, eta buruz». Garaiko euskal kulturako izen ezagunak ere eramaten zituen maiz ikasgelara. Harritu egiten da Urbe bisita haiek irudikatzen, miarretsita. «Ikusten duzu emakume bat hain txikia, hain bakartia, eta gero ikusten duzu haren inguruan zeukan sarea: Telesforo

(Aurreko orrialdetik dator)

ago zihonan; bere bizitza osoa zegoen horren inguruan». Denborarekin, onberago oroitutako Garaialdek ere, eta haren alde onak nabarmendu behar direla uste du. «Zer garrantzi ematen dion gizalegiari, indarkeriaren aurka burua erabiltzeari, adimenari... Justizia bera; hori dena asko lantzen zuen. Edo berdintasuna». Gaitetia, hain justu, berdin hazten zituen neskek eta mutikoak; miretsita oroitzen dituzte orain horrelakoak. Baina Garaialdek ere baditu iltzatuak andereñoak ikasleei egindako «burla txikiak» eta halakoak. «*Ninikeria* zen hitz bat asko erabiltzen zuena. Horrelako gauzak bazituen».

Horiek horrela izanda ere, garai ilun haietan andre hark izan zuen garrantzia nabarmendu egin behar dela dio Davilak. Motibo askorengatik. «Batetik, emakumea zelako, eta neskek ikusi zuten, hura ikusita, zerbait egin zezakete. Nazionalismoa eta emakumearen funtzioa azaltzeko gida bat izan zen: erreferentzia bat. Jendeak ikusi zuen: 'Ni ere hel naiteke horra'», adierazi du. «Pedagogo moduan, ez nuke jarriko lehen-lehen lerroan. Julene Azpeitia eta adibidez, hor daude: progresistagoak». Baina egindako lana goraiatu egin behar dela pentsatzen du. «Ez sinistekoa da; adineko emakume bat, zer, eta Donostiara etorri, eta burgesia seme-alabak hezten jarri zen... Erabateko apustu pertsonala izan zen; bere bizitza izan zen erlijioa eta inguru hori guztia».

Ondo prestatzen zituen, gainera, ikasleak, baliabide oso gutxiarekin eta sasoi hartarako guztiz berria zen era hartan aritu arren. Arazorik gabe hasten ziren ikasleak, behin Zipitriaren eskola utzita, ohiko eskolatzean. Hala oituzten du Barrenetxeak. «Ni ez naiz izan inoiz ikasle distiratsua, baina normalean arazorik gabe moldatzen ginen: inolako problemarik gabe». Zenbait ikasle txetan ordurako haien jatorriaren berri izaten zutela gogoan du: «Gu izaten ginen *las vascas*». Gogotik saiatzen zen andereño ikasleak prestatzen: era osoan. «Aintzat hartzen zituen ikasleen beharrezan, eta gaztelania ere, esaterako, lantzen zuten», azaldu du Nayak. Ikasleen lan koadernoetan badira gaztelaniazko testuak. «Eta frantsesetik ere ikasten zuten

Pottokaketa kutxatilik matematiketarako


Hezkuntza Museoa antortzen dute, bereziki, metodoa berritzailea zerabilela matematikak irakasteko: aintzat hartzeko modukoa. Kutxatxo batzuk gordeak dituzte — *kutxatilik* ziren Zipitriaren ikasgelan —, kanikekin — horiek *pottoka* ere deitzen zituzten —,

eta horiek erabiltzen zituen matematikako kontzeptuak irakasteko. «Ez dugu ikusi beste inon ere horrelakorik. Ekarpen bat da. Horren berri izan dugu bere jarraitzaile batek kontatutakoaren bidez», azaldu du Hezkuntza Museoko zuzendari Pauli Davilak. Sistema eraginkorra dela adierazi du. «Matematika oso modu bisualean irakasten zuten». Hain justu, hainbat ikasgiltzetan — Zipitriak beste hainbat andereñoekin sortu zuten

Elbira Zipitria, bide urratzailea

Orixe ikastolan, behintzat, bai — sistema hori erabiltzen jarraitu dute gero ere matematikak irakasteko. Kanika mota ezberdinak izaten zituen: buztinezkoak eta kristalezkoak, eta hainbat neurritakoak. Itxuraren arabera, balio ezberdina ematen zieten; batekoak, hamarrekokoak, ehunekoak... Era horretan, kutxatilik kanikekin bete ahala, «trukaketak» egiten besezko era egiten zuten neskatuilek. Kantu bat ere bazuten

horretarako: «Dendan andre Joxepa, trukatzeko kanikak-eta...». Gogoan dute ikasle askok, baita andereñoek ere. Sistema hura erabiltzen ikasi zuten andereñoen arabera, «irudi bidez» irakasteko hautu hori eginda, errazagoa zen ikasleentzat ikaskeza prozesua: ikusi egiten zutelako. Gero pasatzen ziren zenbakietara. Pauli: «Niretzat, sistema ona da». Nabarmenezkoa: hain zuzen ere, ikusgai jarriko dituzte aurki.



Matematika irakasteko erabiltzen zituen kutxatilik eta kanikak, Hezkuntza Museoa. JON URBE/FOKU

ikasleek, beraz, hiru eleko eredu bati buruz ari gara; alde horretatik ere, aintzat hartzekoa da modernitateak», onartu du Davilak.

Downen sindromea

Arantxa Urbek ere nabarmendu nahi du Zipitriaren modernotasunaren beste


etsenplu bat; gogorarazi nahi du zein izan zen 40ko hamarraldian Donostian izan zuen lehenbiziko ikaslea: Migel Mari Egia, Downen sindromea zuen gazte bat zen. Urte asko egin zituen Zipitriak haren ande-

reño: etxera joaten zitzaion eskolak ematera. Era berritzailean aritu zen harekin ere. «Hain zuzen ere, aztertzekoa da nola sinetsi zuten harengan; nola egin zuten lan, zer baliabide erabili zituzten harekin. Adibidez, futbola gusatzatzen zitzaion hari, eta Espainiako probintziak futbol taldeen bidez irakatsi zizkion»

Garai berrietara moldatzeko, ordea, zailtasunak izan zituen Zipitriak. Halako argitasuna izan zuen andrea izan zela aintzat hartuta, paradoxa dirudi. Baina bat datoz solaskide guztiak: apurka-apurka baktzeria egin zuten. Davila: «Beharbada, zeukan iraganaren nostalgia, eta ulergarria da. Bera ia bakarrik egon zen urte askoan, guztiz atxikia egon zen mundu jakin batera...». Oro ilun zenean ere.

Jazarpeneren kezka; «txirrina» jotzeko erak

Usu pentsatu dute egotzen berezitasun apartekoan Hezkuntza Museoa; 40ko hamarraldian nola lortu zuen Zipitriak euskarazko proiektu bat abiatzea. «Gure susmoa da nahiko kontrolatuta zegoela Poliziaren partetik; Parte Zaharrean, emakume bat pasoa, hamar umerekin... Segur aski esango zuten: 'Hamar besterik ez dira'. Aldiz, bizi zen presioaren bizipen asko dituzte ikasle eta irakasle ohiek. Hara Feli Barrenetxearenak: «Txirrina jotzen zutenerako, bagenekien jende ezaguna zen edo ez». Sartu-irtenak ere kontrolatzen zituzten, usu: «Ez ginen denok batera sartu edo irteten; egon ziren une larriak».



Elbira Zipitria,
bide urratzailea



Beitia eta Mitxelena asteon Donostian, Urgullerako bidean; askotan igo zuten maldak hori Zipitriarekin. JON URBE/FOKU

‘Malas maestras españolas’ deitzen zituen Zipitriak ikasketak amaitu berri heltzen zitzaizkion maistra gazteak; horixe bera esan zien Kontxita Beitiari eta Mari Karmen Mitxelenari. Haren jarraitzaileak izan ziren gero. Miresmenak irmo dirau.

«Ordura artekoarekin ez zuen zerikusirik»

Arantxa Iraola Donostia

Diktadura aroan hazi ziren biak, euskal kultura b a s a m o r t u bihurtuta ikus-teagatik hanka-hanka eginda zegoen aginte sistema hartan: Mari Karmen Mitxelena (Usurbil, Gipuzkoa, 1938) eta Kontxita Beitia (Pasai Antxo, Gipuzkoa, 1940). Biak, maistra ikasketak amaitu berri, Elbira Zipitriarekin trebatzen aritu ziren, eta unibertso berri bat zabaldu zitzaizkien harekin: inoiz ikusi gabea. Harekiko miresmena bizi-bizi dute oraindik. Mitxelena: «Ordura arte ikusita-koarekin ez zeukan zerikusirik han ikusi nuenak: beste mundu bat zen». Beitia: «Harrituta geratu ginen: erabat. Zer-nolako tresnak erabiltzen zituen, esaterako, matematika ulertarazteko». Ikasgaien oinarritzko kontzeptu

asko, ariketak egiteko «mekanikaz» harago, haren ikasgelan jaso zituztela onartzen dute. Beitia: «Ni konturatu nintzen ondo-ondo zer zen zatiketa bat *Mandubiko bidezaina* erakutsi zuenean». Ipuintxo bat da, umei kontatzen ziena, horren bidez era argian uler zezaten zer ziren zatiketak: kontzeptua bera. Bere ondoan urtebeteko praktikaldia egitera behartzen zituen Zipitriak andereño gazteak, eta harenaren tankerako etxe-eskolak irekitzen hasten ziren gero. Maistra izateko ikasketak amaitu berri, *malas maestras españolas* izan ohi zirela esaten zien sarri [maistra espainiar txarrak]; antzaldatu egin nahi izaten zituen, hark buru-bihotzetan zuen eskola eredurako irakasle egokiak izan zitezten.

Harriduraz oroitzen dituzte gaur oraindik haren ondoan bizi izandakoak. Mitxelena: «Oso eskola bizia egiten zuen. Esaterako,

esaten zuen ume horiek ez zekite-lagoizean hartzen zuten kafesnea nondik zetorren. Orduan, haiek hartuko zituen, eta Bretxara joango zen; hango baserritarri litro bat esne hartuko zion, eramango zuen etxera, bere sukalde zahar hartara eramango genuen, esnea irakiten jarri, eta denak hantxe begira; gero hartzen zuen kafea, ehotzen zuen, eta kafesnea egiten zuten». Prozesu osoa jarraitzen zuten ikasleek. «Hurrengo batean, ibilaldi bat aprobehatuko zuen baserri batera joateko, eta umeek ikusteko behiak nola jertzen ziren». Urgull mendiko gaztelua ikasteko eredu horren beste adibidea: kantari igotzen ziren. Hara iritsitakoan, hostoak eta fruituak biltzen aritzen ziren askotan. «Horiek denak hartu, ikastolara eramane eta, adibidez, horma irudiak egiten zituzten gero ikasleek... Horrelako gauza asko egiten zituen». Beti lehene-

ten zituen «gertuko» ezagutzak: etxe ondoko parajeak, ibaiak, mendiak... Hortxe ipintzen zuen ikasketaren oinarria. Eta baliabide urritasuna agerikoa bazen ere, eskolako martxa on bat ziurtatzen zuela diote. «Berak bazekien gauzak zergatik egiten zituen eta nola», nabarmendu du Mitxelena: «Berak esaten zuen bere meritua ez zela gauza berriak asmatzea, baizik eta lehendik asmatuta zeuden gauza onak hartu, euskaratu eta euskalsena eta nor-tasuna ematea horiei. Horretan zuen aparteko dohaina».

Hezkidetzaren aldetik ere, eskola berritzailea zela argi dute. Mitxelena: «Neskak eta mutilak elkarrekin; hori ez zen ia inon ere gertatzen. Eta berdin erakusten zien». Eskolako garbiketarako, esaterako, erratz eta pala txikiak zituzten, eta berdin-berdin aritzen ziren neskek eta mutilak. Baita jolaserako orduan ere: «Mutilei esaten zien, hartu biberoia: eman panpinari». Egindako lana defendatu egiten zuen, gainera, Zipitriak: irmo. «Behin, oraindik legezatzeko geundela ikuskari bat etorri zen. Harrapatu gintuen justu ume guztiak lurrean zebiltzala.

Haserre, hark: *En el suelo, como los mahometanos* [Lurrean, Mahomaren jarraitzaileak bezala]. Mespretxuzko hitzak izan ziren harenak. Elbirak berehala izaten zuen, ordea, erantzuna: *Pues, en una escuela piloto de París se trataba así* [Bada, Parisko eskola pilotu batean halaxe dihardute], gogora ekarri du Mitxelenak. Hortxe amaitu zen kritika.

Abertzaletasuna

Abertzaletasuna presente zegoen jardunaren izaeran bertan, mui-nean, baina horri buruz modu eplizituan «egun jakin batzuetan» aritzen zela azaldu dute bi andereñoek. Beitia: «Egun horietako bat izaten zen, adibidez, Frantzisko Xabierkoaren eguna». Mitxelena: «Beste egun bat izaten zen Mikel Goiangurearena: ‘Mikel, Mikel gurea, zaindu, zaindu Euskal Herria!’ esaten genuen». Iltzatua dute gogoan beste egun bat: 1960ko martxoaren 22a. Begiak busti-busti joan zitzaion Zipitria Mitxelenari: «Mari Karmen, lehendakaria hil da. Zerbait egin beharko dugu». Eta, hain justu, Jose Antonio Agirre lehendakaria hil berrian ikusi zuten Zipitriarik abertzalea, baita ikasgelan ere. Beitia: «Abertzale-

tasun guztia atera zitzaion; oso presente egon zen gai hori». Kuxta batean gordetzen zituen eskolako materialak, eta egun hartan ordura arte inoiz gutxitan ateratakoa atera zuen handik umeen aurrera: ikurrina. Beitia: «Ikurrina zahar bat zen; adierazi zuen gudariek erabilitakoa zela eta han zeukala gordeta. Haurrei azaldu zien hori ikurrina zela, beti maite beharrekoa; barruan zuen guztia adierazi zuen egun hartan. Ikastolan zuen umerik gazteerak musu eman zion ikurrinari, eta berriz ere gorde egin zuen».

Bakardadera

Badakite emakume gogorrenaren fama zuela: oso zorrotzarena. Onartzen dute alde hori. «Baina



Neskak eta mutilak elkarrekin; hori ez zen ia inon ere gertatzen. Eta berdin erakusten zien»

Mari Karmen Mitxelena

Elbira Zipitriarekin trebatutako andereñoa

«Pentsatzen zuen ikastolak tamaina handikoak baziren asko galduko genuela bere sistema pedagogikoa zela eta»

Kontxita Beitia

Elbira Zipitriarekin trebatutako andereñoa

biguna ere bazen; malkoak noiz-nahizituen», adierazi du Mitxelenak. «Bere buruarekin zen oso zorrotza, eta besteei ere eskatu egiten zien». Urteak konplitu ahala, «minak» pilatuz joan zitzaizkiola uste dute. Euskara batuarena izan zen bat. «Bera batuarenean alde zegoen, baina ez zitzaion ongi iruditzen egin zen batua: guztiz haserre zegoen». Izan zituen oinaze gehiago: «Sufrimendurik handiena izan zuen ETArek sorrrera. EGiko jendea eta ziren hasi zirenak, seme-alaben parekoak ziren harentzat». Aldaketa horiei aurre egiteko, «oskol bat eginda», eta haren barruan irudikatzen izan ohi du Beitiak Zipitria: «Hortik etorri zitzaion bakartuta geratzea, eta bakardadea».

Ingurumari horretan, errezelo handiak izan zituen ikastolen legezatzearren harira. Mitxelena: «Beldurra zuen; uste zuen pikutara joango zirela ikastolak». Beitia: «Pentsatzen zuen, ikastolak tamaina handikoak eta baziren, asko galduko genuela, bere sistema pedagogikoa zela eta». Erakundeen itzalean, haien maizter, jardun isilean egindako lan haren izaera galtzeko beldurra zuela uste dute. Handituz-handituz joan zitzaizkien itzal horiek.



Hasieran, 'Ira 26-2' izena jarri zion Maider Oleagak Elbira Zipitria 'Ira'-ri buruz haren etxean filmatu lanari. 'Muga deitzen da Pausoa' izenburuarekin estreinatu zuen, atzo, Durangoko Azokako Irudienean.

Iraren etxea defendituko dut



Maider Oleaga, zuzendu duen *Muga deitzen da Pausoa* filmeko fotograma batean. Goi-goiko irudiak ere film horretakoak dira. MAIDER OLEAGA

Amagoia Gurutzaga Uranga

Donostia

Donostiako Parte Zaharra. Fermin Calbeton kalea, 26. Bigarren solairua. Mexikon zazpi urtean bizi eta gero Euskal Herrira itzuli berri den zinemagilearen bizitoki berria. Iraganak bizi du etxe hori, baina. Eta, iragan horretan, izen propio bat:

Elbira Zipitria Irastortza (Zumaia, Gipuzkoa, 1906-Donostia, 1982). Bertan bizi izan zelako hirurogei urtez; bertan hezi eta alfabetatu zituelako dozenaka haur eta heldu, euskaraz eta klandestinitatean, frankismo beteko hiru hamarkada luzez; bertan itxi zelako; bertan hil zelako.

Etxe txiki aspaldiko bat, egurrezko leiho, marko eta altzari xumez betea. «Emakumea dago heren. Etxe honetan dago. Gu gau-

de». Maider Oleaga (Bilbo, 1976) zinemagilearen *off*-eko ahotsaren lehen hitzak filmean. Hortik aurrera, espazio bat, bere paretak, beira itsuzko ate, leiho eta arrailduren bitartez dimentsioen arteko muga zeharkatzeko, eta denborarena tolesteko. Horixe *Muga deitzen da Pausoa* filmaren muina. «Esperimentu pertsonal bat, saiakera filmatu bat, bilaketa prozesu baten destilazioa», zuzendariaren hitzetan. Antzinako bihotz

bat azaltzeko. «Ira ukitzeko. Ira ulertzeko». *Ira*. Zipitriak bere buruari jarri zion ezizena. Zenbaitean hizkiz eta beste batzuetan marrazkiz islatu zuena. «Oso erraza da egiten haren marrazkisinadura», Oleagak. Hartu du boligrafoa; marraztu ditu puntu beretik abiatzen diren hiru marra; eta marra bakoitzaren gainean, beste bana, sigi-sagan. Hortxe iratzea, ira, garoa. Eta, landarearen jaio puntuaren azpian, lau

marratxo, belar solteak balira bezala. «Hortxe Ira. Nik ez dut sinadura hau interpretatuko, baina uste dut nahikoa esaten duela emakume hari buruz».

Plazandre marrazkiduna. Emakume politikari eta ekintzalea. Emakume jeltzalea. Emakume ausarta. Emakume azkarra. Emakume ez-estandarra. Emakume zakarra. Emakume abaildua. Emakume bakartua. Etxekoandrea? Emakume asko gor-

Elbira Zipitria, bide urratzailea

putz bakarrean. «Emakumearen etxea defendatzeko, zuloetatik sartu, eta iluntasun horretan erreko naiz. Ez dakit zutik irau-nen duen», dio Oleagak filmean. Emakume ezezagun baten etxea memoria kolektiboaren eraikin zartatua. Eraikuntza bat, ahanztura deseraikitze. «Asko egin dugu memoria historikoaren arloan, baina ahanztura historikoaren eremuan dago Ira, beste emakume asko bezala».

Lehen pertsonan deseraiki behar izan du ahanztura hori Oleagak. 26-2 helbidedun etxera ailegatu arte ez zuelako Zipitria ezagutzen. «Ez nekien ezer berari buruz. Zero. Hasieran, ez nion kasu handirik egin, baina, hainbeste denbora kanpoan egin eta gero, nire bizitzako momentu jakin hartan, horrelako etxe batera sartzea eta Ira bezalako pertsona bat ezagutzea... Oso eskertua nago harekin». Zipitriaren idatzietan eta hari buruz idatzitakoetan arakatu zuen lehenik, pare bat urtez; zapaldu zituen tokiak zapaldu nahi izan zituen segidan; zuzenean ezagutu zutenak elkarriketatu zituen gero; haren itzalari forma ematen hasi azkenik.

«Nire memoria hutsuzen bete ikusi dut. Elbirarekiko bakarrik ez; baita haren garai historikoarekiko ere. Lan hau egiten ari nintzela ikasi dut Euskal Pizkundeaz zer izan zen benetan, abertzalea nola loratu zen –eta nola ito zuten–, lehen ikastolak nola sortu ziren, euskara batuaren gaiak zenbat eztabaidea ireki zituen eta beste hamaika kontu. Ez nekizkien. Adierazgarria iruditzen zait gure iraganari buruzko ezjakintasuna».

Zipitriaren etxeak ezezagutza bat baino gehiago gorpuzteko hezurra eskaini dio. Hainbestearaino, esku artean film bat bazuela erabaki zuenean, *Ira 26-2* izena jartzea bururatu zitzaion. Huraxe zuelako Zipitriarekin bat egiteko espazioa. «Gure etxea». Irarena; eta berea. Argazki proiektio, argizaiol, puxtarri, ispilu, leiho ireki eta isiltasun hautsiek. «Gure etxea... Bertan nengoela, hala esaten nuen. Joan nintzenetik, 'Irairen etxea' da. Eta bai, maite dut Ira. Beldurra ematen didala ere badiot filmean, baina horregatik ere maite dut. Harreman bat badago gure artean».

Harreman horren fruitua da Oleagak atzo Euskal Herrian, Durangoko Azokako Irudienean, aurkeztu zuen filma. Hainbat erakunde publikoren laguntzarekin egin du filma, eta ekimen kolektibotik ere badu, *crowdfunding* bidez jarri baitzuen abian proiektu-



GORKA RUBIO / FOKU

Iraren barne tristeziak kateatu nau bereziki. Hainbatetan aipatu izan den 'euskal tristezia'-ren zantzuak ditu»

«Film hau ez da dokumental konbentzional bat. Saiakera bat da, Ira bilatzeko eta ukitzeko moduak probatzeko»

«Filma hemen asko mugitzea eta jakin-mina eta harridura sortzea nahi nuke: Irarekiko; eta gure ezjakintasunarekiko»

Maidier Oleaga
Zinemagilea

tuaren gauzatzea. Filmaketa horrek aurrera egin ahala, EITBren partaidetza eta Zazpi 1' erdi, Filmmotive, Izar Films, REC Grabaketa Estudioa eta Gariza Filmsen lankidetzara ere lortu ditu. Bidean, izenburua aldatu dio zuzendariak lanari. *Muga deitzen da Pausoa* izenez aurkeztu du jendaurrean, Zipitriak oso maitea zuen Pedro Mari Otañoren *Zazpiak*-bat poemako esaldi bat bere eginda.

Mugak

Oyaltzat artu zagan Euskera, Goraiztat Bidasoa, Ibai koxkor bat besterik ez da, Utsa balitz itsasoa: Elkarren urbill daude Zazpiak, Muga deitzen da «Pausoa» Zergatik izan bear ez degu Famili bakar osoa?

Otañoren poema horretan ikusi zituen Oleagak Zipitriaren bizitzako zioa –«misioa»– eta Zipitria bera. Euskal Herria, euskal kultura, euskara zituelako motor.

Bide urratzaile eta muga haustaile izan zelako. Eta hautsi zituen mugen artean bat nabarmentzekotan, etxearena ahaztu ezin, Oleagaren aburuz: «Garai hartan, emakumeak behartuta zeuden etxean gelditzera, eta berak, hori aprobetxatu, eta kaiola transgresiorako eremu bilakatu zuen. Klandestinoa izanik ere, eremu publiko bihurtu zuen etxea. Izugarria iruditzen zait».

Eremu pribatu horretan, paretetan esekitako koadro bakaneke ematen dute Zipitriaren barne paisaien arrastoa: bi kristo gurutziltzatu, eta baserri mundua erakutsen duten hiru margolan. «Koadro horiek zituen etxean, eta hor ere badago Ira. Erlijioa eta Euskal Herria erakusten dituzte. Eta, gainera, Euskal Herri tradizionala, baserria».

Tradizioaren mugak gainditzen ere asmatu zuen Zipitriak, hala ere, Oleagak nabarmendu duenez. «Emakume Abertzale Batzuan sartu zen emakume askok arazoak izan zituen etxean, ez zitzaizolako jendaurrean nabarmentzea onartzen». Zipitria, zehazki, mitinlari, idazle eta irakasle aritu zen; plaza publikoaren erdigunea hartu zuen ahal izan zuenetan. «Momentu on asko izan zuen. Euskal Pizkunde garaietan oso alai, bizia eta kementsua izan zuen. Politikari sena zeukan. Muga administratiboa ere zeharkatu zuen, 36ko gerra bukatu eta Iparraldeko erbestetik Donostiara

bueltatu zenean, 1941ean. Herriarekiko ardura izugarria erakutsi zuen orduan ere, jakin bazekienez erabat fitxatuta zegoela». Gainditu ezin izan zuen muga bat ere agertzen hasiko zen, baina, Oleagaren esanetan: «Denbora pasatu ahala, etxe horretan, sasia, ia ezer aldatzen ez zela ikusiz... Konpromiso erabatekoa izan zuen, beste askok bezala; zera ukitzekotan egon ziren, eta infernuan bizi ziren».

Testuinguru horretan, Jose Antonio Agirre lehendakaria erbestean hil zen eguna izugarri latza izan omen zen Zipitriarentzat. «Horrek guztiak sortu zion tristeziaren muga ezin izan zuen gainditu, eta hori da gehien hunkitzen eta tristatzen nauena». Tristezia hori ulertzeko grina izan du Oleagak, hain zuzen ere, *Muga deitzen da Pausoa* filma egiteko akuilu nagusia. «Iraren gogortasuna asko azpimarratu ohi da. Zakarra zen, bai, baina ez dakit gizona izan balitz hainbeste nabarmenduko ote litzatekeen. Asko sufritu zuen belaunaldi oso baten zakartasuna zeukan hark. Haren iluntasunak kateatu nau bereziki, haren barne tristeziak. Hainbatean aipatu izan den *euskal tristezia*-ren zantzuak nabarmenak dira Irarengan».

Gorpuztea

Zipitriak esperientzia propioetatik, beren gorpuztetatik pasarazien zien jakintza bere ikasleei, eta liluragarri zaio Oleagari. Estreinatatu berri duen filmean, berriz, bere gorpuztetik pasarazi du Zipitriaren eraikuntza. «Irak ez zuen

inolak gorazarrerik nahi izan azken urteetan, eta nolabaiteko ituna egin nuen harekin: 'zu aipatuko zaitut, baina neu ere agertuko naiz trukean' moduko bat». Hortik abiatuta eratu zuen gidoia. Hala, Oleagak berak ere gainditu ditu muga batzuk lan honetan. «Inoiz ez dut honelakorik egin. Eta inoiz ez naiz nire pelikuletan agertu. Enkoadraketaarena da gainditu dudana mugarik agerikoa, kamera atzetik aurrera pasatu bainaiz. Ez nuke esango pelikula baten antzeztan ari naizenik. Ahotsa ere sartu dut. Performance bat egin dut, eta emaitza ez da dokumental konbentzional bat. Saiakera bat da, esan dizut lehen, Ira bilatzeko eta ukitzeko modu ezberdinak probatzeko».

Udan amaitu zuen saioa. «Hain lan intentsu eta sakona izan zen beretzat, kito esan zion Oleagak bere buruari. «Orain artean egin dudan filmik garrantzitsuena da niretzat, eta ez dakit noizbait egingo ote dudana prozesuak hainbesteko zentralitate daukan beste lanik. Zeharkatu nau arlo zuzietan. Gogorra izan da. Ira ez delako emakume erraza. Ederra eta betegarria ere izan da, aldi berean».

Azaroaren 18an erakutsi zuen lehenengo jendaurrean. Gijongo (Espainia) zinemaldian. «Filma ariketa performatibo bat den arren, Ira da zentroa, eta asko ari gara hitz egiten hari buruz Gijongo estreinalditik. Asko poztzen nau. Filma hemen asko mugitzea eta jakin-mina eta harridura sortzea nahi nuke: Irarekiko, eta gure ezjakintasunarekiko».